

EMAKUMEAK KONGRESUA

2023 urtarrilaren 17tik 20ra | Bilboko Euskalduna
Jauregia



CALL FOR POSTERS

EMAKUMEAK berdintasunari eta feminismoari buruzko kongresua izango da, urtarrilaren 17tik 20ra, Euskalduna Jauregian. **EMAKUMEAK** proiektua kongresua bera baino handiagoa da, eta webgunean (www.emakumeak.eus) kontsulta daitezkeen hainbat jarduera biltzen ditu. Kongresuaren gaiari dagokionez, ardatz egituratzaileak hurrengoak dira: ekonomia feminista, askatasun afektibo-sexuala eta agenda feminista. Ardatz horietan oinarrituta, berdintasun eta feminismoarekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzten masterreko ikasleentzako deialdi bat ireki nahi genuke posterrak bidaltzeko, kongresuan ikusgai egon daitezen.

Parte hartzeko proposamenak avsp@avsp.eus helbidera bidali behar dira azaroaren 15a baino lehen. Bidalketa horren ondoren, egileek abenduaren 21era arteko epea izango dute behin betiko posterrak bidaltzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak kongresuan parte hartu izanaren ziurtagiria emango die azkenean posterrak aurkezten dituztenei.

Posterrak bidali nahi dituzten pertsonak mezu bat bidal dezakete avsp@avsp.eus helbidera, asuntuan CALL FOR POSTERS adieraziz, azaroaren 15ra arte, honako informazio hau barne:

- Autorearen izen-abizenak
- Masterraren izena
- Kontaktua: telefonoa eta posta elektronikoa
- Posterraren izenburua eta laburpena (gehenez 250 hitz). Laburpenak posterraren gai orokorra adierazi behar du; proiektu osatua den, aurreratzen ari den lana, ekimen berria, etab.

Nahi duenak parte hartu ahal izatea bermatu nahi dugu eta, beraz, inprimaketa gastuak Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko ditu.

Data garrantzitsuak:

- Proposamenak: azaroaren 15ean
- Posterrak: abenduaren 21ean
- Ebaluazio-prozesua eta emaitzak: abenduaren 23an
- Erakusketa: urtarrilak 17-20